

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

lehiate	«Egurrezko lehiate zabalekin.»
krosko	«Etxearen atarian lorategi bat, ondo zaindua eta hondartzan txalupa zahar baten kroskoa .»
hilarri	«Gizonak hilarrietako izenei begiratzeko esan zigun.»
irarri	«Eta bizirik geratzen zen hark, aldiro-aldiro hilerrira bisita egiten zuelarik, irarrita ikusiko zuen bere izena hilarrian.»
hobiratu	«Estoniarrek uste dute, elkarrekin hobiraturaz gero, geroko bizitzan ere pertsonak elkarrekin egongo direla.»
hilondoan	«Elkarri promesa egina zioten, bizitzan ez zirela elkarrekin egongo, baina hilondoan bai, eta betiko.»
ahapeka	«Badakizu, horrela esaten dio gure amonak hiru-lau lagun ahapeka berbetan ari direnean.»
ogerleko	«Notarioak esan zien ezertan hasi baino lehen ordaindu egin behar zutela, ogerleko bina eman eta hasiko zirela lanean.»
erretilu	«Gurditxo batekin ari da afariko erretiluak banatzen.»
danke	«Edatekoa ardo beltza. Danke . Bite.»
bite	«Edatekoa ardo beltza. Danke. Bite .»
iradokitzaile	«Txaluparen izena gainera oso iradokitzailea da.»
aldarte	«Irudiak ikusi eta tristetu egin zitzaion aldarte a.»
zipriztin	« Zipriztinez zipriztin urez betetzen da batela, pixkanaka-pixkanaka.»
aitzindari	«Santi Meabe Tomas Meabe aitzindari sozialistaren anaia zen.»
lauso	«“Toki-argia” portura iristen zeneko oroitzapen lausoak ditut.»
dohainak eduki	«Hantxe ikusi zuten dohainak zituela mutilak eta Madrilgo “Casa de la moneda” egoitzara igorri zuten...»
ortozik	«Itsasoan, alde, ortozik ibiltzen ziren.»
makal	«Badaezpada ere Miel etxean geratu zen, makal zebilen eta hobe etxean geratzea.»
kirika egin	«Prismatikoekin egiten zien kirika .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

anker	«Orduan mindua zabala eta erakargarria zen. Orain, aldiz, ankerra .»
ugazaba	«Urtean behin egiten zuen bidaiia ugazabaren mandatariak irlara, udan.»
olgeta	«Posta igortzeko oholezko barkutxo batzuk eraikitzen zituzten, olgetakoak balira bezala, jostailuak.»
xume	«Apendizitis xume batek bultzatu zuen irlaren uztea.»
damu	«...gauza batekin zegoela pozik eta gauza batekin damu .»
paraninfo	«Sasoiz bukatu zuen pintura Artetak, eta egun seinalatuan eskegi zuten koadroa institutuko paraninfoan .»
harribitxi	«“ Harribitxia duzue hemen”. Esan nuen ikasle eta irakasleei, harri eta zur, nik neuk ere uste bainuen koadro horren arrastoa galdua zela.»
pipi	«Duela gutxi traste zaharren gelan, pipiak jandako mahai eta aulkien artean, koadro handi bat idoro zuten.»
idoro	«Duela gutxi traste zaharren gelan, pipiak jandako mahai eta aulkien artean, koadro handi bat idoro zuten.»
apaizgaitegi	«Logroñoeko apaizgaitegia atonduko zuten pintura margotzeko proposamena egin zion Bastidak Artetari.»
agnostiko	«Seminarioaren ardura zuen gotzaina ez zen gehiegi fio margolari agnostiko hartaz eta lanean ere ez zuen bakean uzten.»
arras	« Arras desberdinak ziren bata bestearengandik.»
kalko	«Zer gerta ere, orriaren atzean kalko bat zuela idazten zuen, idatzitako gutunen kopiak etxean gordetzeko.»
estanpatxo	« Estanpatxoak erakutsi eta santu honen itxura edo beste honena gurako lukeela esaten zion margolariari.»
gura izan	«Estanpatxoak erakutsi eta santu honen itxura edo beste honena gurako lukeela esaten zion margolariari.»
gogoangarri	«1929ko maiatzaren 23an Bastidak Artetari igorri zion eskutitza gogoangarria da.»
egitismo	«Egon zen kritikarik, hala ere, Artetaren fede falta azpimarratu zuenik, esan zuenik ez zuela benetan sinesten egitismo hartan.»
sargori	«“Uda arraro eta sargoria zen, Rosenberg senar-emazteak elektrokutatu zituzten uda hura, eta nik ez nekien zer egiten nuen New Yorken.”»
kerak	«Gogoan dut 2003ko aldi hartan indiar kerak zituen neska batekin konturatu nintzela.»
kortejatu	«Galderak egiten zizkion neskari eta hura kortejatu nahian zebilela zirudien.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

amaginarreba	«Bigarrenaren izena, baina, amaginarrebaren esku utzi zuen.»
bataiatu	«Eta horrela, azterketaren bat nuenean bertara eramaten ninduen eskuarekin musu ematera, nahiz eta ni neu bataiaturik ez egon.»
tematu	«Dena den, neure bostean pentsatu nuen gauza intimoa izango zela egunkari hura, eta horrexegatik ez nintzen tematu hura eskatzen.»
desterratu	«“...Unamuno deitzen den gizon batekin hitz egin du eta desterratua dago erregeari buruz eta Primo de Riverari buruz txarto hitz egiteagatik.”»
agidanean	« Agidanean , gazteak ez zekien oso ondo zein zen zorioneko Unamuno hori.»
batel	«Behin, batel txikietan sartu ginen eta aita guri arraunean erakusten saiatu zen.»
lemazain	«...“ni neu ere lemazaina naiz eta zure ahotsa ezagutu dut itsasoko irratitik.”»
zibotekoa	«Hegazkina berri zibotekoa da, berri-berria.»
ubarroi	«Txori hur zein izango zen hasi zen pentsatzen. Ubarroia ote zen.»
xamur	«Eta, ondorioz, hasierako galderak errazak izaten dira, xamur erantzutekoak.»
itaundu	« Itaundu zion jaiotze-eguna eta noiz izan zuen lehen itsasoratzea.»
galipota	«Eskuz jasotzen zuten karelera galipota , hegaluzea bezala, banan-banan.»
hats	«Galipotaren hatsa ez da egunetan joaten. Ez dut uste halako hatsik munduan beste ezerk duenik.»
estimatu	«Benetan estimutzen zuen ahalegina, eta, batez ere, estimatzen zuen arkitektoa.»
legez	«Eta uztaiak arrainetan legez , gertaera latzak geratu egiten dira gure memorian...»
galera	«Arrainetan negua dena, gizakietan galera da.»
gomutan hartu	«Aitonaren keinu hori betiko hartuko zuen gomutan gure amak.»
aitzinean	«Horien aitzinean begiratokia zegoen, itsasoari begira egoteko.»
abaro	«Bestea bikote gazte bat da, solasean arbola baten abarora .»
traza	«Aitzitik, hiriko neskek ez dute horrelako trazarik .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

landa	«Lan hark finkatuko zituen hala Bastidaren nola Artetaren ibilbideak, eta ezagun egingo zituen Euskal Herritik landa .»
eskerga	«Eginbehar eskerga zen hura, hamar mural baino gehiago, eta gainera azalera irregular batean.»
atakan egon	«Behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari zer egingo nuen nik Artetaren atakan egon izan banintz.»
bide	«Artetak lehenengo bidea hautatu bide zuen, eta Picassok bigarrena.»
haga	«...garbitzen lagundu, hanketatik hondarra kendu eta beren bainuko arropak hagetan eskegi.»
pronto	«...Athletic Clubeko futbolariak zeuden bertan abioia hartzeko pronto .»
zanga	«Itsas hegazti gutxi batzuek, hala nola karioek, martinek eta zangek udan atsedean hartzeko erabiltzen dute arroka.»
hurte	«Horren hurte eta ezin ezer egin.»
mihise	«Itsasertzeko argitasun hori jaso nahi zuten beren mihiseetan .»
ubera	«Baina hortxe galdu da margolanaren ubera .»
peskizan	«Darío de Regoyosen ondotik pintore ugari hurreratzen zen itsasaldeko argi horren peskizan .»
berariaz	«Baporea berariaz sartu zuen, zubiaren erdi aroko aireari kontrastea egiteko.»
andana	«Horren ondo gorde zuen sekretua Benignak ezen inork ez zuen ezer jakin urte andana igaro arte.»
entzun txarreko	«Horrelaxe jakin zuten entzun txarrekoa izan zela amona eta ez ziela men egin gurasoen esanei.»
men egin	«Horrelaxe jakin zuten entzun txarrekoa izan zela amona eta ez ziela men egin gurasoen esanei.»
barreiatu	«...hantxe zituen barreiatu Carmenek zuri-beltzeko argazkien albumak.»
zume	«...nola bazkaltzen zuten zumezko aulkietan...»
mantelina	«...nola bazkaltzen zuten zumezko aulkietan eta ilea mantelina z estalirik...»
albait -en	« Albait hobekien idazteko ahaleginean...»
makur	«Bigarren apaizaren estiloa, oster, makurra zen.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ñabardura	«Izan ere, kontakizunek errealitatearen ñabardurak jasotzen dituzte.»
akolito	«Etxetik ateratzean txanpon batzuk uzten zituzten akolito baten irudiak zuen otarretxoan.»
egurastu	« Egurastu egin behar da kapa, egun handirako...»
enparauak	«Aitona Canuto eta enparauak ez ziren hil Ondarroako badian, Santander aldean baizik.»
eriden	«Joaquin de Bustamante baporea ibili zen bazter haiek miatzen eta halaxe eriden zuen.»
ifrentzu	«Baina aurki guztiak du bere ifrentzua .»
parez pare	«Komunak albo banatara daude eta parez pare ispilu handi bat dago.»
lurrin	«Salgai dauden produktuei begira jarri naiz. Lurrinak . Calvin Klein. ONE.»
harkaitz	« Harkaitzekin jo eta hondoratu egiten ziren ontziak.»
profitatu	«...biztanleek itsas galera haiek profitatzen zituzten lehengaiak bereganatzeko.»
makal	«...eta azkar hazteko zuhaitzak aldatu zituen bertan. Zumarrak, makalak eta zumeak.»
esklabo	«Afrikatik etorritako esklabo beltzek egiten zutela.»
sorterri	«Sendatu zelarrik, kapitainak sorterrirako bidea hartu zuen atzera ere.»
olgeta-benetan	«...bota bide zion magistratuak olgeta-benetan .»
arrasto	«Kapitainak irribarre egin zion eta halaxe galdu zen guardiaren arrastoaren atzetik.»
belaontzi	« Belaontzitik batel bat jaitsi zuten uretara, eta lau gizonek arraunean ekarri zuten...»
erritu	«Agirietan argi eta garbi jartzen du erritu kristaua aintzat hartuta hilobiratu zutela Leton.»
hilobiratu	«Agirietan argi eta garbi jartzen du erritu kristaua aintzat hartuta hilobiratu zutela Leton.»
mendeku	«Hortxe bukatu zen haien mendekua .»
trikimailu	«...lehorreratzen ginenean konturatzen ginen honek edo besteak trikimailu horietzek erabiltzen zituela.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

tripulazio	« Tripulazioak futbolean egin zuen Irlandako gazteen kontra.»
arrantzale	«Ez zidan esan nork irabazi zuen, arrantzaleek edo irlandarrek.»
sendo	«Barkua ondo sartua egon behar da itsasoan, sendo .»
barku	« Barkua ondo sartua egon behar da itsasoan, sendo.»
alineazio	«...patroien izenak esaten hasi zen, futbol talde bateko alineazioa balitz bezala...»
su-eten	«Madrilen harrapatu ninduen ETAre azken su-etenaren berriak...»
zaharkitu	« Zaharkituak ikusi nituen, eta ni nintzen gela biribilaren erdian pinturei begira zegoen bakarra.»
oroitzapen	«...baina oroitzapen txarra gordetzen zuen salerosketa hartaz.»
salerosketa	«...baina oroitzapen txarra gordetzen zuen salerosketa hartaz.»
aduan	«Aduanan aurretik izandako esperientzia txarra zela-eta, eskatu zuten Unibertsitatean bertan zabaltzeko kutzak...»
trebatu	«Azkenik, zuk zeuk haien ondorengo legez trebatu behar duzu...»
amesgaizto	«Goizeko lau eta erdiak. Ondarroa. Amesgaiztoa izan dut.»
parranda	«Gazteak etxera bueltan datoz parrandatik .»
gordintasun	«Huraxe izan zen lehen aldia gatazkaren gordintasunaz jabetu nintzena.»
gatazka	«Huraxe izan zen lehen aldia gatazkaren gordintasunaz jabetu nintzena.»
seminario	«...gaztetatik zuten harremana, Gazteizko seminarioan ikaskide izan baitziren.»
komentu	«Zumaiako komentuan zegoela abade, eta orduak eta orduak igarotzen zituela mojen aitopenak entzuten.»
abade	«Zumaiako komentuan zegoela abade , eta orduak eta orduak igarotzen zituela mojen aitopenak entzuten.»
dohain	«Nazaretekoari buruz ari zen, funtzionatzen duela haren dohainak , berari efektua egin ziola.»
zerbitzari	« Zerbitzariak oraindik eserita daude, baina hala ere jendea telefonoak pizten hasi da.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

makina bat

«**Makina bat** jendeke egiten zuen ihes itsasoz Lapurdi aldera.»

gotzain

«Seminarioaren ardura zuen **gotzaina** ez zen gehiegi fio margolari agnostiko hartaz eta lanean ere ez zuen bakean uzten.»

harri eta zur

«“Harribitxia duzue hemen”. Esan nuen ikasle eta irakasleei, **harri eta zur**, nik neuk ere uste bainuen koadro horren arrastoa galdua zela.»

behin

«**Behin**, batel txikietan sartu ginen eta aita guri arraunean erakusten saiatu zen.»

grina

«Haren **grina** ikusita, Blaschkatarrek agindu zioten hiru-lau bat erreplika egingo zituztela, proba gisa.»

hiru-lau bat

«Haren grina ikusita, Blaschkatarrek agindu zioten **hiru-lau bat** erreplika egingo zituztela, proba gisa.»

aldi-aldi

«Eta bizirik geratzen zen hark, **aldi-aldi** hilerrira bisita egiten zuelarik, irarrita ikusiko zuen bere izena hilarrian.»

aitorpen

«Zumaiako komentuan zegoela abade, eta orduak eta orduak igarotzen zituela mojen **aitorpenak** entzuten.»

aldatu

«...eta azkar hazteko zuhaitzak **aldatu** zituen bertan. Zumarrak, makalak eta zumeak.»

mandatari

«Urtean behin egiten zuen bidaia **ugazabaren** mandatariak irlara, udan.»

igorri

«Posta **igortzeko** oholezko barkutxo batzuk eraikitzen zituzten, olgetakoak balira bezala, jostailuak.»

seinalatua

«Sasoiz bukatu zuen pintura Artetak, eta egun **seinalatuan** eskegi zuten koadroa institutuko paraninfoan.»

ikaskide

«...gaztetatik zuten harremana, Gazteizko **seminarioan** ikaskide izan baitziren.»

uztai

«Eta **uztaiak** arrinetan legez, gertaera latzak geratu egiten dira gure memorian...»

aurki

«Baina **aurki** guztiak du bere ifrentzua.»

agiri

«Agirietan argi eta garbi jartzen du erritu kristaua aintzat hartuta **hilobiratu** zutela Leton.»

azpimarratu

«Egon zen kritikarik, hala ere, Artetaren fede falta **azpimarratu** zuenik, esan zuenik ez zuela benetan sinesten egitasmo hartan.»

zorioneko

«Agidanean, gazteak ez zekien oso ondo zein zen **zorioneko** Unamuno hori.»

zer gerta ere

«**Zer gerta ere**, orriaren atzean kalko bat zuela idazten zuen, idatzitako gutunen kopiak etxean gordetzeko.»

berri

«Madrilen harrapatu ninduen ETAREN azken su-etenaren **berriak**...»